

## **Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Legearen aurreproiektua**

**Pamplona / Iruña, 11/03/2016**

# Aurkibidea

|                                                                                    |    |
|------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Hitzaurrea.....                                                                    | 4  |
| I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak .....                                              | 9  |
| 1. artikulua. <i>Xedea eta helburua</i> .....                                      | 9  |
| II. KAPITULUA. Gizarteratzeko eskubidea .....                                      | 10 |
| 2. artikulua. <i>Eskubidearen titularrak</i> .....                                 | 10 |
| 3. artikulua. <i>Programak eta zerbitzuak</i> .....                                | 10 |
| 4. artikulua. <i>Prozedura</i> .....                                               | 11 |
| III. KAPITULUA. Errenta bermatua.....                                              | 11 |
| 1. sekzioa Xedapen orokorrak .....                                                 | 11 |
| 5. artikulua. <i>Eskubidearen titularrak</i> .....                                 | 11 |
| 6. artikulua. <i>Unitate jasotzailea, familia unitatea eta familia gunea</i> ..... | 12 |
| 7. artikulua. <i>Zenbatekoak</i> .....                                             | 13 |
| 8. artikulua. <i>Familia unitatearen ahalmen ekonomikoa</i> .....                  | 13 |
| 9. artikulua. <i>Familia unitatearen diru-sarrera konputagarriak</i> .....         | 13 |
| 10. artikulua. <i>Familia unitatearen diru-sarrera ez konputagarriak</i> .....     | 14 |
| 11. artikulua. <i>Familia unitatearen ondare konputagarria</i> .....               | 14 |
| 12. artikulua. <i>Familia unitatearen ondare ez konputagarria</i> .....            | 14 |
| 13. artikulua. <i>Prestaziorako eskubidea ematen duen ahalmen ekonomikoa</i> ..... | 15 |
| 14. artikulua. <i>Enplegurako pizgarriak</i> .....                                 | 15 |
| 15. artikulua. <i>Jaso beharreko errenta bermatuaren zenbatekoa zehaztea</i> ..... | 15 |
| 16. artikulua. <i>Jasotzeko aldia</i> .....                                        | 15 |
| 17. artikulua. <i>Prestazioa jasotzen dutenen betebeharrak</i> .....               | 15 |
| 2. sekzioa. Prozedura .....                                                        | 16 |
| 18. artikulua. <i>Hasiera</i> .....                                                | 16 |
| 19. artikulua. <i>Instrukzioa</i> .....                                            | 16 |
| 20. artikulua. <i>Prozedura ebaztea eta ebazpena emateko epea etetea</i> .....     | 17 |
| 21. artikulua. <i>Laguntzaren onarpena eta ordainketa</i> .....                    | 17 |
| 22. artikulua. <i>Aldaketak</i> .....                                              | 17 |

|                                                                                                                                                                               |    |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 23. artikulua. <i>Bertan behera uztea</i> .....                                                                                                                               | 17 |
| 24. artikulua. <i>Prestaziorako eskubidea azkentzea</i> . ....                                                                                                                | 18 |
| 3. sekzioa. Zehapen araubidea .....                                                                                                                                           | 18 |
| 25. artikulua. <i>Arau-haustea</i> .....                                                                                                                                      | 18 |
| 26. artikulua. <i>Arau-hauste arinak</i> . ....                                                                                                                               | 18 |
| 27. artikulua. <i>Arau-hauste larriak</i> . ....                                                                                                                              | 19 |
| 28. artikulua. <i>Arau-hauste oso larriak</i> .....                                                                                                                           | 19 |
| 29. artikulua. <i>Zehapenak</i> .....                                                                                                                                         | 19 |
| 30. artikulua. <i>Zehapenen mailaketa</i> .....                                                                                                                               | 19 |
| 31. artikulua. <i>Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa</i> . ....                                                                                                           | 20 |
| 32. artikulua. <i>Zehapen-prozedura</i> . ....                                                                                                                                | 20 |
| 4. sekzioa. Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideez batera baliatzea .....                                                                                          | 20 |
| 33. artikulua. <i>Xedapen orokorrak</i> .....                                                                                                                                 | 20 |
| 34. artikulua. <i>Gizartean bazterkerta larriko egoeran dauden pertsonak</i> . ....                                                                                           | 21 |
| Lehen xedapen gehigarria. <i>Kotizazio gabeko bestelako erretiroko errenta eta pentsioekiko bateragarritasuna</i> . ....                                                      | 21 |
| Bigarren xedapen gehigarria. <i>Itunak Autonomia Erkidegoekin</i> . ....                                                                                                      | 22 |
| Hirugarren xedapen gehigarria. <i>Konfidentzialtasunaren bermea</i> .....                                                                                                     | 22 |
| Lehen xedapen iragankorra. <i>Prestazioak eskatzeko aldi baterako araubidea</i> . ....                                                                                        | 22 |
| Bigarren xedapen iragankorra. <i>Enplegurako pizgarriak</i> . ....                                                                                                            | 22 |
| Hirugarren xedapen iragankorra. <i>Gizarteratzeko plan estrategikoa</i> .....                                                                                                 | 23 |
| Laugarren xedapen iragankorra. <i>Zerbitzu publiko eskudunak</i> .....                                                                                                        | 23 |
| Xedapen indargabetzaile bakarra. <i>Arauen indargabetzea</i> .....                                                                                                            | 23 |
| Azken xedapenetan lehena. <i>Erregelamendu bidez garatzea</i> .....                                                                                                           | 23 |
| Azken xedapenetan bigarrena. <i>Arauk emateko ahalmena</i> .....                                                                                                              | 23 |
| Azken xedapenetan hirugarrena. <i>Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen eta Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko araudiaren aldaketa</i> . ....    | 23 |
| Azken xedapenetan laugarrena. <i>Bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezinak deklaratzeko otsailaren 25eko 6/2013 Foru Legearen aldaketa</i> . .... | 24 |

|                                                                                                                                                                                                                     |    |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Azken xedapenetan bosgarrena. <i>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzen da, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.</i> .....         | 24 |
| Azken xedapenetan seigarrena. <i>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzen da, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.</i> .....         | 24 |
| Azken xedapenetan zazpigarrena. <i>Errenta bermaturako eskubidea ematen duten atalase ekonomikoak gainditzen dituzten lan errentak jasotzen dituztenentzako kenkari fiskalei buruzko foru lege proiektua.</i> ..... | 25 |
| Azken xedapenetan zortzigarrena. Indar hartzea. ....                                                                                                                                                                | 25 |

## Hitzaurrea

Krisiak eta ondoren gertatu den guztiak ondorio larriak izan ditu, hainbat pertsona egoera ahulagoan utzi dituelako, eta haren kostuak, batez ere, errenta txikiagoa duten gizataldeek ordaindu dituzte garestien. Txirotasun, berdintasun falta eta bazterketa sozialeko egoeren adierazleek (AROE tasa eta haren osagaiak, iraupen luzeko langabezia, diru-sarrerarik gabeko etheen proportzioa, edo desberdintasun sozialeko adierazleak) populazioaren zati handi baten bizi baldintzek okerrera egin dutela erakusten dute, eta egoera hauetan agerian gelditzen da: bitarteko ekonomikoen gabezia bizitzaren oinarritzko beharrei aurre egiteko, bizitoki eta etxebizitza arloko arazoak, osasun fisiko eta psikikoaren gainbehera, autoestimu galera, eta lotsa sentimenduak eta estigmatizazioa agertzea, baita gaitasun eta trebetasun pertsonalik gabe gelditzea ere bizitzari aurre egiteko, sostengurako sare sozial eta familiarrak hondatzearekin batera.

Egoera honen ondorioz, oinarrizko beharrak asetzerik ez duten eta babes sozialeko prestazioetara eta programetara jo beharra duten pertsonen kopurua eta heterogeneotasuna handitu egin da. Krisialdiaren eta enpleguaren gainean dituen ondorioen iraupena dela eta, horren eraginpean dauden pertsona askori kotizaziopeko langabezia prestazioak ahitu zaizkio, eta laguntza-subsidioaren izaera emanaz luzatu dira, eta horixe da, egun, lan egiteko adinean daudenen diru-sarrera faltari erantzuteko tresna publiko nagusia. Zerga-baterakuntzarako eta defizitaren jaitsierarako politikek babes soziala zabaltzeko aukerak mugatu dituzte.

Horrekin batera, presio handiagoa ekarri du azken baliabideko babes mailan, Nafarroan, funtsean, hauetan: gizarteratze-errenta eta foru nahiz udal mailako laguntza bereziak eta larrialdietakoak. 2015ean gizarteratze-errentaren azken erreformak eta larrialdiko laguntzak abian jarri izanak hobekuntza nabarmena ekarri dute sortutako egoera berriei eman beharreko arretari dagokionez, baina ez da nahikoa.

Krisialdiak eragindako beste egoera bat soldata txikiekin lotutako txirotasuna da. Enplegua izateak, besterik gabe, ez baitu bermatzen gaur egun txirotasunetik ateratzea, ez eta, zenbait kasutan, lansariak laguntza sistemek bermatzen dituzten diru-sarrera garbiak baino handiagoak izatea.

Gizarte zerbitzuek zailtasunak izan dituzte egoera berrira malgutasunez egokitzeko. Alde batetik, faktore hauek daude, erreakziorako gaitasuna mugatu dutenak: krisialdia ustekabekoa izatea, plangintza sozialaren arloan ebaluazioak egiteko kulturaren

ahulezia, gai honekin zerikusia duten zerbitzu eta eragileen artean koordinazioa eta lan banaketa eraginkorra egiteko arazoak, eta bitarteko publikoak esleitzeko efizientzia falta. Bestetik, gastu publikoaren aipatutako murrizketak direla eta, oso zaila izan da hain larria den desafioari aurre egiteko behar adina baliabide lortzea. Egoerak atzerapauso handia ekarri du sisteman, laguntza hutsera eta eskaerari epe laburrean erantzutera bideratutako ikuspegia sendotu du, eta ahuldu, berriz, proaktibitatea eta prebentzio eta sustapenaren alderdiak. Bereziki larria da oinarritzko gizarte zerbitzuak eta bestelako gizarte zerbitzu espezializatuak, bai publikoak bai sozietate zibileko erakundeek dituztenak, ezinean ibiltzea eragin duela.

Eta azken ondorioak hauek izan dira: indarreko araudiak aitortzen dituen eskubide sozialez baliatzeko aukera mugatu da, gizartea pobreagoa da kide guztien ekarpen ekonomiko eta sozialak galdu direlako, arrakala soziala areagotu da, eta, azkenik, gure gizartearen kohesio sozialak izan duen galdera.

2. Egoera ikusita, beharrezkoa da babes sozialerako sistema erreformatzea, eta eskubideetan oinarritutako ikuspegiari eutsi eta horretan sakontzea. Alde batetik, azken baliabideko sarea osatzen duten prestazio ekonomikoen estaldura eta haietaz baliatzeko aukerak hobetzea da xedea, maila horren gaineko ardura Foru Komunitatearena baita, gizarte laguntzaren arloko eskumena bere gain duen aldetik. Bestaldetik, herritar guztiek, batez ere lan eta gizarte bizitzan moldatzeko zailtasun bereziak dituztenek kalitatezko gizarte zerbitzuak eta enplegua izateko aukerak hobetzeko xedea du. Bi norabide horien oinarria Nafarroako gizarteak dituen beharrak izateaz gain, bat datoz Europar arau eta doktrina mailan dauden joerekin.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 25.1. artikuluan eta aldarrikapen hori garatzeko tresna guztietan beste eskubide ekonomiko, sozial eta kultural batzuen artean honakoa ere ezarrita dagoenez, pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere. Bizimodu egokia izateko eskubide hori babes sozialaren oinarria da, ahulezia edo bazterketa sozialaren egoeretan edo egoteko arriskua dagoenean, eta horrenbestez, berarekin dakar botere publikoek erantzukizuna izatea egoera horietan, hainbat arrazoiengatik, dauden pertsonetik.

Era berean, eskubideetan oinarritutako ikuspegi horrek berarekin dakar pertsona guztiek erkidegoarekiko oro har dituzten erantzukizun orokorrak ere zehaztea, eta halaxe adierazi du Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoak aspaldi honetan; horrek esa nahi du eskubide batez baliatzeak zenbait erantzukizun eta betebeharrak dakartzala berarekin, eta horiek edozein eskubide baliatzeari buruzko arauetan berariaz adierazi beharra dagoela.

Nabarmendu behar da, halaber, Nazio Batuen Batzar Orokorrak 2015eko irailaren 25ean onetsi zuen 70/1 Ebazpenak, Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendari buruzkoak, bere helburu eta xedeen artean ezartzen duela, besteak beste, herrialdeen arteko desberdintasunak murriztekoa, eta, bereziki, 2015etik hasita 2030era bitarte,

populazioaren % 40 txiroenaren diru-sarrerak handitzea eta horri eustea lortu behar dela pixkanaka, tasa hori herrialde bakoitzeko batez besteko nazionaletik gorakoa izan dadin; horrez gain, pertsona guztien inklusio soziala, ekonomikoa eta politikoa sustatu behar dira, edozein izanik ere haien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo bestelako ezaugarriak.

Babes sozialaren eta gizarteratzearen arloko Europako Estrategiak (Europako Estrategia 2020) beharrik handiena duten pertsonen integrazioa laguntzeko ikuspegi global bat proposatzen du, hiru zutabek osatutako estrategia integral bat gauzatuz: (a) laneratzea erraztuko duten lan merkatuak, (b) baliabide osagarri egokia eta (c) kalitatezko zerbitzuak izatea.

Foru lege hau bat dator hiru zutabe horiekin, eta haren xedea da, eskubide subjektibo gisa, herritarrek baliabide ekonomiko egokiak eta gizarteratzeko kalitatezko zerbitzuak izanen dituztela ziurtatzea. Era berean, lan merkatuan sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiak laneratzea sustatzeko helburua du.

Urteak dira foru erakundeak arlo honetan lanean hasi zirela. Laurogeiko hamarkadan laguntzak ezarri ziren premia zuten nafar familientzako; gero, horietatik, oinarrizko errenta sortu zen, eta geroago gizarteratze-errenta. Ordainketa aurreratuko alargun pentsioen gaineko kenkari fiskala ere arlo horretako ekintza bat da. Gizarteratzeko sostenguari dagokionez, oinarrizko gizarte zerbitzuek eta espezializatuek, batetik, eta gizarte ekimeneko entitateek, bestetik, ibilbide luzea eginga dute.

Legearen asmoa da jarduketa horien bi osagaiak bereizi eta, aldi berean, koordinatzea: errenten bermea eta akonpainamendu sozialeko eta enplegurako zerbitzuak ematea. Ekintza horiek logika desberdinen ondorio dira. Errenta bermeen prestazioak jasotzeko baldintzen kasuan, egoera eta ezaugarri objektiboak, batez ere ekonomikoak, hartu behar dira aintzat, eta beste prestazio ekonomiko batzuk eskuratzearekin uztarturik egon behar du, eta enplegurako pizgarriak mantendu. Gizarteratzeko akonpainamenduko gizarte zerbitzuen erabilerak, berriz, esku-hartze sozialaren logikari erantzun behar dio, pertsonen egoerak, gaitasunak eta aukerak kontuan hartuz, baita haien ingurunea, eta norberaren garapenerako erritmoak eta denborak ere, loturik egon gabe esku-hartzearen uneren batean prestazio ekonomikoa jasotzearekin. Logika desberdin horien ondorioz, laguntza publikoaren mota bat edo bestea jasotzen duten pertsonak ez dira beti berberak. Nahikoa diru-sarrerarik ez duten pertsona guztiek ez dute uneoro gizarteratzeko prozesu pertsonalizatuen beharrik. Eta prozesu horien beharra ez da mugatzen errenta bermatua jasotzen dutenengana, barne hartzen dituztelako, besteak beste, beste prestazio batzuen onuradunak eta, halaber, prestazio ekonomikorako premiarik izan gabe, gizarteratzeko akonpainamenduko prozesuak behar dituztenak ere.

Gizarteratzeko gutxieneko errenten esperientziak erakutsi du ez dela komeni lotura estuegirik ezartzea bi zutabe horien artean. Baldintza estuegiak jartzeak arrisku bat du, alegia, baliabide faltari aurre egiteko babes lanaren eta gizarteratzeko esku-hartze sozialaren distortsioa eragitea. Gutxieneko errenta eskuratzeko baldintza gisa gizarteratzeko jardueretan edo itunetan parte hartzea ezartzen denean, diskrezionaltasun eta arbitrarietate klausula bilakatzeko arriskua dago, beharrezkoa

den babes hori administrazioaren eta lan harreman bat arrakastaz ezartzeko interesa duten pertsonen gaitasunaren menpe jartzen duelako. Zorroztasun horrek eragin dezake gizarteratzeko prozesu pertsonalizatuak kontrol tramite huts bihurtzea, garapen pertsonala eta herritarren ahalduntzea sustatzeko bete behar duen zereginari balioa kenduz.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen atarikoak adierazten duenez, onetsiko den zerbitzu zorroan jasoko da herritarrek zer prestaziotarako eskubidea izanen duten; eskubide hori subjektiboa izanen da, herritarrek prestazioak eman behar dituzten administrazioei eskatuko diete eta, ezinbestean, auzitegietan, eta horrek, beraz, laguntza-izaera kentzen die gizarte zerbitzuei.

Lege testu horrek, 20. artikuluko b) atalean, gizarteratze-errenta izeneko prestazio ekonomiko bermatua dela ezartzen du. Prestazio hori urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legearen bidez arautu zen, eta apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretuak araututako oinarritzko errenta izenekoaren ordeztatu egin zen. Azalpeneko aurreko puntuan aipatutako testuingurua dela eta, gizarteratze-errentarako ezarritako erregulazioa behin baino gehiagotan aldatu behar izan da, halako moduan non gaur egun ez baitie erantzuten dauden beharrei eta ez baitu barne koherentziarik arautzean, eta, horregatik, arau berria behar da, hainbat arazoirengatik beren oinarritzko premiei aurre egiterik ez duten pertsonen botere publikoek bermatzen dizkieten baliabideetarako eskubidea osorik erregulatuko duena. Eskubide horren erabilera baliagarria da prebentziorako eta gizarteratzea eta kohesio soziala sustatzeko.

Bestalde, aipatutako 15/2006 Foru Legearen 2. artikulua ezartzen duenez, botere publikoen jarduketek funtsezko helburu hauek izanen dituzte, besteak beste, gizarte zerbitzuen arloan: a) pertsona guztien bizi kalitatea hobetzea eta haien normalizazioa, partaidetza eta integrazioa bultzatzea gizartean, politikan, ekonomian, lan arloan, kulturen eta hezkuntzan (...); d) kohesio soziala eta elkartasuna sustatzea (...); eta e) pertsonen eta taldeen bazterketa egoerei aurre hartzea eta haietaz arduratzea. Horrenbestez, arau testuan berariaz adierazi ez bazen ere, gizarteratzerako eskubide bat badago hor, legeak arautzen duen gizarte zerbitzuen sistemaren bidez gauzatu daitekeena. Horregatik, beharrezkoa da eskubide hori argitu eta arautzea, azken urteotan kalteak izan dituen kohesio sozialaren funtsezko zutabea baita.

3 Foru lege honek, azaldutakoarekin bat, bi eskubide sozial arautzen ditu; pertsonen librek onartzen duten gizarteratze prozesurako eskubidea, administrazioak hura gauzatzeko ardura bere gain hartzea dakarrena, eta errenta bermatua jasotzeko eskubidea, oinarritzko beharrei aurre egiteko gaitasun ekonomikorik ez dutenentzako prestazio ekonomiko gisa, behar horiei erantzuteko. Lege honek hiru kapitulu eta xedapen gehigarri, iragankor eta azkeneko batzuk ditu.

I. kapituluaren xedapen orokorrak jasotzen dira, artikulua bakar batean: foru legearen xedea eta helburua zehazten ditu, bi eskubideak definitu eta zehazitzen ditu, eta foru legearen helburu sozialak betetzen direla egiaztatzeko ebaluazio neurriak ezarri behar direla onartzen du.



II. kapitulu osoa foru legeak araututako eskubideetatik lehenari buruzkoa da, hau da, gizarteratzeko prozesuari buruzkoa. Hasieran, eskubidearen subjektuak zein diren zehazten du, eta nabarmentzen pertsonak libreaki eta beren borondatez erabakitzen dutela hartaz baliatzea; horrekin batera, "bazterketa sozialaren" kontzeptua arau honen babespean egonen dela adierazten du. Bestalde, eskubide horretaz baliatzea bermatzeko zerbitzuak eta programak ezartzeko erantzukizun publikoa arautzen du, eta egutegi bat ezartzen, xedapen gehigarrietan, aplikaziorako eta erregelamenduzko garapenerako.

III. kapituluak bigarren eskubidea du hizpide, hau da, errenta bermatua jasotzeko eskubidea, eta hiru sekziotan egituratuta dago: lehenbizikoa eskubidearen ezaugarriei buruzkoa da; bigarrena eskubideaz baliatzeko prozedurari buruzkoa, eta hirugarrena, azkenik, eskubideaz baliatzeak titularrentzat dakartzan betebeharrak ez betetzean aplikatu beharreko zehapen araubideari buruzkoa.

Eskubidearen ezaugarriei dagokienez, subjektuak zein diren arautzen da, eskubidearen titularrak alegia, eta, aurreko egoerarekin alderatuta, estaldura handiagoa da, atzemandako behar sozialei erantzuteko modukoa. Izaera unibertsala badu ere, hau da, ez zaio inori eskubideaz baliatzeko mugarik jartzen egoera juridiko-administratiboagatik, prestazioa jasotzeko gutxieneko betebeharrak objektibo eta egiaztagarri batzuk bete behar dira, adina, bizilekua Nafarroako Foru Komunitatean izatea eta oinarritzko beharrei aurre egiteko gaitasun ekonomikorik ez izatea. Bestalde, prestazioa jasotzeko eskubidea duten subjektuen ahalmen ekonomikoa zehazteko kontuan hartu beharreko alderdiak eta zenbatekoak ezartzen dira, baita jasotzeko epeak eta eskubideaz baliatuz gero subjektuek bere gain hartzen dituzten betebeharrak ere, hala nola enplegurako aktibo mantentzea, helburu orokor batekin: pertsona horientzat prestazio ekonomikoa aldi baterako elementua izatea, uneko egoerak eragindakoa, edo bizilekua Foru Komunitatean izatea, bertan aktibo daudenentzako babes soziala gordetzeko eta eskubidearekin lotutako gizarteratze prozesuei eusteko. Azpimarratu behar da enplegua sustatzeko elementu bat ere erantsi dela, pobretutako langileei laguntzeko neurri gisa, bai prestazioaz baliatzeko bai prestazioa jasotzen duten bitartean. Xedapen gehigarrietan aurreikusten da pixkanaka handitzea pizgarri horiek, errenta bermatuaren atalasean gainetik doi dauden langileek jaso ditzaketenak. Era berean, xedapen horietan aurreikusirik dago nola bermatzen zaien prestazio hori 65 urtetik gorakoentzako kotizazio gabeko erretiro-pentsioa jasotzen dutenei, eta kasu horietan ez da aukeratzen zuzenean jasotzeko aukera, kenkari fiskal bat aldeztu aurretik ordaintzea baizik, alargun pentsioen gaineko kenkari fiskalaren antzekoa.

Eskubideaz baliatzeko prozedurari buruzko sekzioan, berriz, prozeduraren fase desberdinak aurreikusten dira, bai eta fase guztietan inplikazioa duten administrazio desberdinek duten erantzukizuna ere. Esan beharra dago zabalik gelditzen dela gizarte eskubideen arloan eskumena duten beste unitate batzuen inplikaziorako aukera, enplegu zerbitzuen kasuan, adibidez, gizarte zerbitzuei dagozkien eskumenen barrenean bada ere. Administrazioaren unitate eskudunetara zabaltzea bat dator pertsona bere osotasunean hartzeko ideiarekin eta botere publikoek orokorrean duten erantzukizuntzat hartzearekin, kasuen gaineko lehiatila eta ardura bakarrean oinarrituta ereduera jotzeko, eta zerikusia duten unitate administratibo guztiek

barneko koordinazioa egin dezaten. Sekzio horren amaieran, eskubidea aldatu, bertan behera utzi eta amaitzeko arrazoiak azaltzen dira, eta nabarmentzekoa da eteteko tresnak jasotzen direla, arrazoi desberdinengatik, lan merkatuan sartzea edo antzekoak, adibidez, tramiteak arintzeko bidea egon dadin eta aldi baterako lanpostu bat lortzea ez dadin kaltegarria izan errenta bermaturako eskubidearen titularrentzat.

Ondorengo sekzioa zehapen araubideari buruzkoa da, eta bertan arau-hausteak eta haien mailak zehazten dira, zer zehapen sortzen dituzten eta zein den araubide honetan bete beharreko prozedura. Bereziki garrantzitsua da arau-haustetzat hartzen den ekintza bat egin duenak baizik ez duela bere gain hartzen hura, eta erantzukizuna eta ondorioak ez direla hedatzen errenta jasotzen duen edo eskubidearen titularra den familia unitateko gainerako pertsonengana.

Kapitulu hori amaitzeko, errenta bermaturako eskubidearen titularrak ere izan daitezkeen pertsonak gizarteratzeko eskubideaz baliatzeari buruzko sekzio bat dago, halako moduan non egoera ahulagoan edo bazterketa egoeran dauden pertsonak biez baliatzeko modua ezartzen baita, batetik, eta, bestetik, administrazioa konprometitzen du pertsona horien jarraipena egiten eta laguntzen.

## I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea eta helburua.

1. Foru lege honen xedea da gizarteratzeko eskubidea arautzea, prozesu pertsonalizatu baten bidez, egoera ahulean edo bazterketa sozialean dauden pertsonen dagokionez prebentzio eta arreta lana egiteko, bai eta errenta bermaturako eskubidea ere.

2. Gizarteratzeko eskubidea hau da: erabateko eta egiazko gizarteratzera bideratutako laguntza eta akonpainamendu pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, alderdi guztietan, halako moduan non pertsona guztiek izanen baitituzte aukerak eta behar diren bitartekoak bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean osotara parte hartzeko, eta Nafarroako gizarte osoarekiko egokia den bizi eta ongizate mailaz gozatuko baitute.

Nafarroako administrazio publikoen erantzukizuna da eskubide hori bermatzea, arreta pertsonalizatua, iraunkorra eta integrala emanez, pertsonen beharren arabera eta haien egoeraz denen artean egindako diagnostiko objektibo eta integralean oinarrituta; baita eskubide horretaz baliatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatzea ere.

3. Errenta bermatua oinarritzko prestazio ekonomiko eta aldizkakoa da, oinarritzko beharrak aserik ez dituzten pertsonen zuzenduta, baldin eta foru lege honetan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

Errenta hau indarreko legeetan aurreikusitako beste edozein motatako baliabide edo prestazio ekonomikoen osagarria eta subsidiarioa da, eta horiek osotara erabili beharko dira errentaren eskaera egin aurretik.

Errenta hau besterenezina izanen da eta, horrenbestez, ezin izanen da:

- a) Betebeharren berme gisa eskaini.
- b) Lagapen erabateko edo partzialaren xede izan.
- c) Konpentsazio edo deskontuen xede izan, bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko ez bada.
- d) Atxikipen edo bahituraren xede izan, salbu aplikagarri den Estatuko legeria orokorrean ezarritako kasuetan eta aurreikusitako mugekin.

Prestazio bermatu hau foru lege honetan eta bere aplikazio eta garapenerako xedapenetan ezarritako irispen eta baldintzekin onartuko da, eta indarreko lege antolamenduarekin bat.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bi eskubideen inpaktua ebaluatuko du bi urtetik behin gutxienez, erregelamenduz zehaztuko den moduan.

## **II. KAPITULUA. Gizarteratzeko eskubidea**

### **2. artikulua. *Eskubidearen titularrak.***

- 1. Eskubide honen titularrak Nafarroan bizilekua izan eta gizarte bazterketaren egoeran dauden pertsona guztiak izanen dira.
- 2. Foru lege honen ondorioetarako, gizarte bazterketaren egoera, gradu desberdinetan, hau dela ulertzen da: zenbait defizit edo gabezia (pertsonalak, harreman mailakoak edo inguru sozialekoak), denboran irauten dutenak eta eskubideez baliatu edo horiek egiaz gauzatzeko traba edo muga direnak, metatzen edo konbinatzen diren prozesu dinamiko baten ondorio den egoera.

### **3. artikulua. *Programak eta zerbitzuak***

- 1. Administrazio publikoaren ardura da bermatzea pertsonen eskubidea gizarteratzeko prozesu horretan laguntza jasotzeko, haien bitartekoak, gaitasunak eta ahalmenak abian jarri eta inguruko baliabideak erabiltzeko aukera emateko diseinatutako ibilbide pertsonalizatu bat eginez.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak gizarteratzeko plan estrategikoak onetsiko ditu, lau urteko iraupenekoak, tarteko ebaluazio batekin, hasi eta bi urtera. Plan horietan zehaztuko dira, gutxienez, eskubide honen inguruko zerbitzuak, programak, bitarteko ekonomikoak eta prozesuaren eta bermearen inpaktuaren adierazleak.

- 2. Pertsonak libreki eta borondatez baliatzen ahalko dira eskubi honetaz, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroan (ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsia) bermatutako programa eta zerbitzuen bitartez, bereziki Oinarrizko laguntzako Gizarteratzeko Oinarrizko Programan, eta bazterketa sozialaren egoeran dauden edo egoteko arriskua duten pertsonen arreta ematen dieten zerbitzu espezializatuez.

3. Halaber, eskubideaz baliatzen ahalko dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eskumena diren laneratze programa eta zerbitzuen bitartez, betiere Nafarroako gizarte zerbitzuen sistemarekin koordinatuta.

4. Baita ere, azkenik, Gizarte Zerbitzuen Zorroak pertsona hauentzat bermatzen ez dituen programa eta zerbitzuen bitartez; horretarako, Nafarroako administrazio publikoek lortuko dituzte horiek ematea, dela baliabide berekiekin, dela jardun eremu honetan espezializatuta dauden gizarte zibilaren erakundeekin elkarlanean.

5. Nolanahi ere, Nafarroako administrazio publikoen jarduna osagarritasun eta koordinazio printzipioek zuzenduko dute, bai administrazioen artean bai administrazio barrenean.

#### **4. artikulua. Prozedura**

1. Interesdunak eskatuta irekiko da, diagnostiko sozial bateratu bat eginez pertsonaren egoera pertsonalaz eta familiakoaz, kasuan kasuko gizarte zerbitzuen esku-hartzearen eta interesdunaren parte-hartze aktiboren bitartez. Ondoren, akonpainamendu sozialerako proposamen bat egingen da, eta programa pertsonalizatu bat finkatuko da haren gizarteratze prozesua egiteko, alderdi guztiak hartuta.

2. Programa pertsonalizatuan gizarteratze itun bat ere sartuko da, bertan zehazteko iraupena, helburuak, partaideekin hartutako konpromisoak eta aurreikusitako emaitzak. Horrekin batera, administrazio publikoek gizarteratze ibilbidea laguntzeko emanen dituzten zerbitzuak eta programak ere sartuko dira, eta, halakorik badago, esku-hartze sozialean eta soziolaboralean espezializatuta dauden gizarte zibileko erakundeek ematen dituztenak, betiere gizarte zerbitzu eskudunarekin koordinatuta. Erabakitako ekintzen jarraipena eta egokitzapena egiteko sistema ere jasoko da.

3. Gizarteratze itunean parte hartuko dute, alde batetik, oinarrizko gizarte zerbitzuek edo, kasua bada, gizarteratzeko eta laneratze taldeek, beren profesionalen bitartez; eta, bestetik, eskatzaileak eta, bidezkoa bada, familia-unitateko beste kide batzuek.

4. Erregelamenduz ezarriko dira bai diagnostiko bateratua egiteko prozesua bai programa pertsonalizatua prestatu, garatu eta amaitzekoa prozesua ere.

### **III. KAPITULUA. Errenta bermatua**

#### **1. sekzioa Xedapen orokorrak.**

##### **5. artikulua. Eskubidearen titularrak.**

Errenta bermaturako eskubidea izanen dute baldintza hauek betetzen dituztenek:

a) 18 urtetik gorakoa izatea edo bere ardurapean seme-alaba adingabeak dituen 18 urte baino gutxiagoko adingabe emantzipatua.

18 urtetik 24 urtera bitartekoa izanez gero, bere ardurapean adingaberik izan gabe, eskatzaileak bi urte eraman behar ditu bere kabuz bizitzen errenta bermatuaren eskaera egin aurretik. Ulertuko da bere kabuz bizi izan dela Gizarte Segurantzaren

sistema osatzen duten errejimen batean, edozeinetan, alta emanik egon baldin bada gutxienez bi urtez, jarraikoak ez badira ere, betiere ere frogatzen badu bere helbidea, aldi horretan, ez dela izan bere gurasoena.

Aurreko lerrokadan esandakoa ez da aplikatuko eskatzailearen gurasoak, biak, hilik baldin badaude edo eskatzailea babes sozialeko erakunde batekoa denean.

b) Nafarroako Foru Komunitatean biziitzea, gutxienez eskaera aurkezten den data baino bi urte lehenagotik edo urte bat, familia unitatean adingabeak dauden kasuetan.

c) Oinarrizko beharrei aurre egiteko adina oinarrizko baliabiderik ez izatea. Gabezia dagoela ulertuko da eskatzailearen gaitasun ekonomikoa, bai eta, kasua bada, kide den familia unitateko gainerako kideena ere, apalagoa denean, osotara, unitate horri foru lege honetan araututakoaren arabera dagokiokeen errenta bermatuaren zenbatekoa baino.

d) Edozein administrazio publiko eskuduni aldeztu aurretik eskatu izana zuzenbideari jarraikiz legozkiokeen prestazioak, pentsioak edo sorospenak, edozein motatakoak; baita mantenu eta/edo konpentsazioko pentsioak ezarri eta ordaintzeko zuzenbide-akzioak baliatzea ere.

## **6. artikulua. Unitate jasotzailea, familia unitatea eta familia gunea.**

1. Prestazioarako eta haren zenbatekorako eskubidea zehazteko, eskatzailearen familia unitatea hartuko da oinarri, artikulua honetan arautzen den moduan.

2. Foru lege honen ondorioetarako, honela ulertuko dira:

a) Familia-unitatea; eskatzaileak osatzen duena gehi, kasua bada, berarekin bizi den pertsona, ezkontza edo pareko afektibitate-harremanean elkartuta, gehi, kasua bada, eskatzailearekin bizi, eta harekin bigarren gradurainoko odol-ahaidetasuneko lotura edo lehen gradurainoko ezkontza-ahaidetasuneko duten pertsonak.

b) Familia gunea; familia unitate batean familia gune bat edo batzuk egon daitezke, familia gunea honela ulertuta: eskatzailea gehi ezkontidea edo berarekin bizi den pertsona, pareko afektibitate-harremanean elkartuta, gehi, kasua bada, eskatzailearekin bizi diren seme-alabak, bai eta familia harrera administratiboan nahiz judizialean dauden adingabeak gehi, haien ikastetxetik gertuago egoteagatik familiaren helbidean aldi baterako bizi ez diren seme-alabak.

3. Oro har, familia unitatea izanen da errenta bermatuaren jasotzailea eta prestazio bakarra egokituko zaio. Salbuespen gisa, bi errenta bermatu jasotzen ahalko dira familia unitate berean familia gune bat baino gehiago daudenean eta haietako batean adingabeak daudenean.

4. Helbide berean bi familia unitate edo gehiago baldin badaude, haietako bakoitzak izanen du eskubidea errenta bermatua jasotzeko, gehienez ere hiru errenta helbide batean.

## **7. artikulua. Zenbatekoak**

1. Lehen pertsonarentzat, gehieneko diru-sarrera, hau da, foru lege honen ondorioetarako errenta bermatuaren zenbatekoa kide bakarreko unitate jasotzaile batentzat, 600 eurokoa izanen da, eta, hortik aurrera, osagarri hauek aplikatuko dira, gehitutako pertsona bakoitzeko.

2. pertsona: % 35 gehiago

3. pertsona: % 25 gehiago

4. pertsona eta hortik gora, bakoitzeko: % 15

2. Prestazioaren zenbatekoa hau izanen da: gehieneko zenbateko horri unitate jasotzaileak dituen diru-sarrerak, foru lege honen arabera konputagarriak direnak, kenduta ateratzen dena. Prestazioaren zenbateko osoa ez da inola ere izanen pertsona batentzat ezarritako gehieneko diru-sarrerak halako bi baino gehiago izanen.

3. Kide bakarreko familia unitate batentzako errenta bermatuaren zenbatekoa urtero eguneratuko da, gutxienez, Nafarroako KPlaren igoera eta Nafarroako batez besteko lansariena zein diren, haietako handienarekin.

4. Errenta bermatu gisa eman beharreko zenbatekoa pertsona batentzako prestazioaren % 10 baino txikiagoa denean, egiaz emanen dena zenbateko hori izanen da.

## **8. artikulua. Familia unitatearen ahalmen ekonomikoa.**

Errenta bermatua jasotzeko eskubiderik dagoen erabakitzeke, eta jaso beharreko zenbatekoa ezartzeko, kontuan hartuko da onuradunaren familia unitatearen ahalmen ekonomikoa, eta, kasua bada, familia gunearena, hau da, egozten ahal zaizkion diru-sarrerak eta ondarea.

## **9. artikulua. Familia unitatearen diru-sarrera konputagarriak.**

Prestazio honen ondorioetarako, familia unitatearen diru-sarreratzat hartuko dira kide guztiek azken sei hilabeteetan eskuratutakoak, eskaerarenean barne, kontzeptu hauetan guztietan:

a) Besteren konturako lan-etekinak. Besteren konturako lan-etekinen sarrera gordinetatik kendu behar dira Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioak eta eskubide pasiboengatik, nahitaezko mutualitateengatik edo antzekoengatik ordaindutakoak.

b) Funts publiko nahiz pribatuen kargura finantzatutako gizarte aurreikuspeneko araubideetan sartutako prestazio eta pentsio aitortuak.

c) Enpresa eta lanbide jardueretako etekinak.

d) Funtsezko ogibidea ez den jardueraren etekinak; modulu estandarizatuak ezarritik kalkulatuak dira, egindako jardueraren, dedikazio denboraren eta intentsitatearen arabera. Diru-sarreraren gaineko erantzukizuneko aitortzearen bidez justifikatuak dira.

e) Kapital higiezinaren azkeneko seihilekoko etekin garbiak.

f) Hurrengo artikuluan salbuesten ez den beste edozein diru-sarrera.

#### **10. artikulua. Familia unitatearen diru-sarrera ez konputagarriak.**

Ondoko kontzeptuak aurreko ataleko diru-sarreraren konpututik salbuetsiko dira:

a) Helburu zehatz baterako laguntza ekonomikoak. Ondokoak hartzen dira "helburu zehatz baterako laguntza ekonomikotzat": familia unitateko kideetako edozeinen behar berariazko bati erantzuteko eman direnak.

b) Pentsioak edo antzeko prestazioak, eskatzailearen familia guztiak ez diren familia unitateko kideenak, edo eskatzailearen ardurapeko seme-alabenak, kide bakarreko unitate jasotzaile batentzako errenta bermatuaren % 45 adinako zenbatekoa gehienez ere.

c) Ardurapeko seme-alabak izateagatik Gizarte Segurantzak ematen dituen prestazioak.

d) Adingabeen babesean eskuduna den departamentuak emandako prestazio ekonomikoak, adingabeak familian hartzeak ekarritako gastuak konpentsatzeko.

e) Gizarteratzeko zentro okupazionalak jardueretan parte hartzeagatik emandako pizgarriak edo eskersariak.

#### **11. artikulua. Familia unitatearen ondare konputagarria.**

Prestaziorako eskubiderik baden erabakitzeak, familia unitateko kideen ondare higigarria eta higiezina eskaera egiten den unean zein den hartuko da kontuan, eta irizpide hauen arabera baloratuko:

a) Higigarrien kapitalak honako hauek biltzen ditu: kontu korronteko eta eperako gordailuak, akzioak, inbertsio funtsak eta pensio funtsak, higigarrien baloreak, bizi-aseguruak erreskate kasuetan eta aldi baterako edo biziarteko errentak, balio nominalaren arabera baloratuko dira; arte-lanak, antzinako gauzak, bitxiak eta bestelako gauzaki baliotsuak, berriz, errenta bermatua eskatzen denean merkatuan duten balioaren arabera baloratuko dira.

b) Landalurreko nahiz hirilurreko ondasunek osatzen dute higiezinaren kapitala. Katastroko balioaren arabera baloratuko dira ondasun horiek.

#### **12. artikulua. Familia unitatearen ondare ez konputagarria.**

Ondoko kontzeptuak aurreko artikuluko ondarearen konpututik salbuetsiko dira:

a) Ohiko etxebizitza, altzariak, etxeko gauzak eta garraiorako ohiko ibilgailua, gehienez ere hirurehun mila euro.

b) Lanbide edo enpresa jardura betetzeko beharrezkoak diren tresnatzat hartzen diren ondasunak.

c) Eskatzailearen familia unitatearen ondasun higigarriak, gehienez ere kide bakarreko familia unitate batentzako errenta bermatuaren % 65 adinakoa, urtean.

### **13. artikulua. Prestaziorako eskubidea ematen duen ahalmen ekonomikoa**

Errenta bermatua jasotzeko eskubidea izanen du eskatzaileak familia unitatearen ahalmen ekonomikoak baldintza hauek betetzen dituenean:

1. Familia unitate osoaren diru-sarrera konputagarrien hileko batez bestekoa foru lege honen 7. artikuluan ezarritako errenta bermatuaren zenbatekoa familia unitateko kideen kopuruaren arabera dagokiona baino txikiagoa denean.

2. Ondasun higigarri konputagarrien balioa kide bakarreko familia unitate bati urtean dagokion errenta bermatuaren zenbatekoaren %65 adinakoa edo txikiagoa denean.

3. Familia unitatearen ondasun higiezin konputagarrien balioa kide bakarreko familia unitate bati urtean dagokion errenta bermatuaren zenbatekoa halako 10 adinakoa edo txikiagoa denean.

### **14. artikulua. Enplegurako pizgarriak.**

1. Enplegurako pizgarriak indartzeko, errenta bermaturako eskubidea eta haren zenbatekoa zehaztearen ondorioetarako, baliabide erabilgarrien konpututik kanpo geldituko da lan jardueren etekinen zati bat, erregelamenduz ezarriko dena.

2. Errenta bermatua jasotzen egonik, familia unitateko edozein kideren lan jarduerak eragindako diru-sarrerak gertatzen badira, baloratu eta jasotako zenbatekoari gehituko zaizkio erregelamenduz ezartzen den prozedura erabiliz.

### **15. artikulua. Jaso beharreko errenta bermatuaren zenbatekoa zehaztea**

Familia bakoitzari aplikatu beharreko prestazioaren hileko zenbatekoa honela zehaztuko da: foru lege honen 7. artikuluan errenta bermaturako ezarritako zenbatekoaren eta eskaera egiten den momentuan familia unitateak dituen diru-sarrera konputagarrien balioaren arteko kenketaren emaitza izanen da, eta, kasua bada, enplegurako pizgarriak kendua, erregelamenduz ezartzen den moduan.

### **16. artikulua. Jasotzeko aldia.**

Errenta bermatua diru-sarrerak bermatzearen arloan eskumena duen zerbitzuak emanen du, hamabi hilabeterako oro har, baina iraupen beretsuko berritzeak egiten ahalko dira, premia egoerak dirauen bitartean.

Horrek ez du galaraziko berrikuspenak egitea, erregelamenduz ezarritako moduan.

### **17. artikulua. Prestazioa jasotzen dutenen betebeharrak.**

Errenta bermatuaren prestazioa jasotzen dutenek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Bizitokia Nafarroan izatea, jarraian eta egiazki, prestazioa jasotzen den denbora guztian.



b) Prestazioa jasotzen den aldi osoan, eskatzaileari nahiz familia unitateko edozein kideri legozkiokeen prestazio ekonomikoetarako eskubide oroz baliaraztea.

c) Lan egiteko adinean dauden guztiak enplegurako eskaintza egokiak hartzeko prest egotea, eta onartzea gertatzen direnean, salbu eta, erregelamenduz ezartzen diren zerbitzu publikoen iritziz lan merkatuan edo enplegu babestuan sartzeko egoeran ez dauden pertsonak badira.

Enplegu egokia zein den zehazteko, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 301. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

d) Oinarrizko gizarte zerbitzuek, gizarte zerbitzu espezializatuek edo enplegu zerbitzuek proposatzen dizkieten laneratze eta gizarteratze jardueretan parte hartzea.

e) Errenta bermatua emateko kontuan hartu ziren unitate jasotzaileen ezaugarrietan aldaketarik gertatuz gero, haren berri ematea gertatu eta hamabost egun balioduneko epean.

f) Unitate jasotzailearen ohiko helbidea aldatuz gero, haren berri ematea gertatu eta hamabost egun balioduneko epean.

g) Bidegabeki jasotako ordainketak itzultzea.

## 2. sekzioa. Prozedura

### 18. artikulua. *Hasiera.*

1. Interesdunak eskatuta hasiko da beti prozedura, eta, horretarako, helbidearen arabera dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuan eskaera aurkeztuko du, prestazioa onartzeko eskubidea ematen duten baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko behar den dokumentazioa erantsita.

Eskaerak erantsita izanen du eskumena duten unitate administratiboei bidezko diren egiaztapen lanak egin ditzaten baimena emateko klasula, interesdunek emandako informazioa egiazkoa ote den eta eskatutako baldintzak eta emakidaren ondoriozkoak betetzen ote diren egiaztatzeko.

2. Eskaera jaso ondoren, administrazio unitate arduradunek beharrezkoa den dokumentazioa bildu, eta espediente osoa gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentura igorriko dute, errenta bermatuaren eskaera tramitatu eta ebazteko.

### 19. artikulua. *Instrukzioa.*

1. Eskaera Nafarroako Gobernuko edozein erregistrotan erregistratu ondoren, administrazio organo eskudunak egiaztatuko du familia unitateak betetzen dituela foru lege honetan eskatutako baldintza guztiak, eta dagokion ebazpen proposamena eginen du.

2. Aurkeztutako agirietan akatsik edo kontraesanik atzemanetz gero, edo eskatutako baldintzak frogatzeko osatu beharra dagoela iritziz gero, eskumena duen unitate

administratiboak eskatzaileari eskatuko dio hamabost egun balioduneko epean akatsa zuzen dezala edo eskatutako agiriak aurkez ditzala, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela.

## **20. artikulua. *Prozedura ebaztea eta ebazpena emateko epea etetea.***

1. Errenta bermatuko eskaerak ebazteko organo eskuduna diru-sarrerak bermatzearen arloko eskumena duen zerbitzua izanen da; zerbitzu horretako titularrak hiru hilabeteko gehieneko epean emanen du ebazpena, eskaerak Nafarroako Gobernuako erregistro ofizialetako batean sarrera duen egunetik aurrera, eta, kasua bada, prestazioaren zenbatekoa eta jasotzeko aldia ere zehaztuko ditu.

Ebazpena epe horretan eman eta jakinarazten ez bada, eskaera isiltasun administratiboaz baietsi dela ulertuko da.

2. Aurrekoa gorabehera, espedientea tramitatzen duen departamentuak eskatzen duenean eskaera zuzentzeko edo dokumentazio osagarria aurkezteko, espedientea osatu gabe dagoelako, errekerimendua jakinarazten denetik hartzaileak egiaz bete arte iragandako denbora edo, bestela, emandako epea amaitzea, ez da kontuan hartuko, eta, beraz, ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea eten egingen du.

3. Prozedura amaitzen duen ebazpenaren aurka, interesdunak administrazioarekiko errekurtoa jar dezake, Nafarroako Foru Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean aurreikusitakoarekin bat.

## **21. artikulua. *Laguntzaren onarpena eta ordainketa.***

1. Errenta bermatua eskaera gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko erregistroan sartu ondoko hilabeteko lehen egunetik aurrera onartuko da.

2. Prestazioa hila bukatuak ordainduko da.

## **22. artikulua. *Aldaketak.***

1. Errenta bermatua jasotzen dutenek departamentuari jakinarazi beharko diote errenta bermatua emateko kontuan hartutako inguruabarretan gertatutako edozein aldaketa, eta prestazioan aldaketak ekar ditzakeena, aldaketa gertatu eta hamabost egun balioduneko epean gehienez ere.

2. Departamentu eskudunak prestazioa emateko baldintzak aldatuko ditu lehenbailehen, eta inguruabarren aldaketak emandako errenta bermatuaren zenbatekoa aldatzea dakarrenean, aldaketa gauzatuko da arrazoia gertatu, edo kasua bada aldaketa gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunari jakinarazi eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera.

3. Arau-hausteen kasuetan salbu, bidegabeki jasotako zenbatekoak itzuli beharrak ez du berandutze interesik ordaindu beharrik ekarriko.

## **23. artikulua. *Bertan behera uztea.***

1. Behin-behineko neurri gisa, errenta bermatua emateko eskumena duen unitate administratiboak erabaki dezake laguntzaren ordainketa kautelaz etetea gehienez ere hirurogei egun naturaleko epean, laguntzari bukaera emateko zantzu nabarmenak

antzematen dituenean . Kautelazko neurri hori hartu dela jakinaraziko zaio eskatzaileari, jakin dezan eta, kasua bada, bere interesen alde egin dezan; horretarako, hamabost egun balioduneko gehieneko epea izanen du jakinarazpena egiten denetik.

2. Epe hori iraganik, organo eskudunak ebazpena emanen du, neurri hori berresteko eta prestazioa behin betiko amaitzeko, egiaztapen gehiago egin beharrez luzapena emateko, edo ezarritako neurria kentzeko.

3. Era berean, interesdunak eskatzen badu, prestazio etetea erabaki daiteke lanean aldi baterako hasteagatik, erregelamenduz ezartzen den moduan.

#### **24. artikulua. Prestaziorako eskubidea azkentzea.**

Errenta bermatuaren prestazioa hartzea arrazoi hauetakoren batengatik amaituko da:

a) Iraunaldia amaitzeagatik.

b) Prestazioa ematean aintzat hartutako baldintzak aldatzeagatik, halako moduan non jasotzailea prestazioa kobratzeko eskatutako baldintzetatik kanpo uzten baitute.

e) Laguntza ez emateagatik, prestazioa jasotzeko eskatzen diren inguruabarrei eta baldintzei buruz behar diren datuak ezkutatzeagatik edo okerreko informazioa emateagatik.

d) Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo hirurogei egun natural baino gehiago emateagatik prestazioa jasotzen ari den aldian.

e) Prestazioa jasotzen ari den aldian enplegu egokiaren eskaintza bati uko egiteagatik edo borondatezko baja edo lan eszedentzia hartzeagatik.

f) Ezarritako betebeharrak edo baldintzetakoren bat ez betetzeagatik.

g) Heriotzagatik.

h) Familia unitate jasotzaileak uko egiteagatik.

### **3. sekzioa. Zehapen araubidea**

#### **25. artikulua. Arau-haustea.**

1. Prestazioaren hartzaileen ekintzak edo ez-betetzeak arau-haustea dira foru lege honetan tipifikatutakoak, lege edo erregelamenduzko araudiaren kontrakoak direnean. Ez da arau-hausteen kontrako zehapenik ezarriko dagokion prozedura aurretik instruitu gabe.

2. Arau-haustea arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

#### **26. artikulua. Arau-hauste arinak.**

Hauek dira arau-hauste arinak:

- a) Unitate jasotzailearen inguruabarretan, errenta bermatua emateko aintzat hartutakoetan, izandako aldaketak jakinarazteko betebeharra ez betetzea, aldaketa horiek prestazioa bidegabeki jaso, aldatu edo gordetzea eragiten ez badute ere.
- b) Errenta bermatua jasotzeko baldintzak ez direla betetzen jakinik ere, hura eskuratu edo gordetzeko xedea duten ekintzak, ekintzen ondorioz asmoa lortzen ez denean ere.
- c) Jasotzaileak prestaziorako ezarritako arauak, betebeharrak, prozedurak eta baldintzak ez betetzea.

#### **27. artikulua. Arau-hauste larriak.**

Hauek dira arau-hauste larriak:

- a) Hiru arau-hauste arin edo gehiago berriz egitea edo errepikatzea.
- b) Errenta bermatua jasotzeko baldintzak ez direla betetzen jakinik ere, hura eskuratu edo gordetzeko xedea duten ekintzak, ekintza horien ondorioz 12 hilabete baino gutxiagotan bidegabeki jaso baldin bada.

#### **28. artikulua. Arau-hauste oso larriak.**

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

- a) Arau-hauste larria berriz egitea.
- b) Errenta bermatua jasotzeko baldintzak ez direla betetzen jakinik ere, hura eskuratu edo gordetzeko xedea duten ekintzak, ekintza horien ondorioz 12 hilabete baino gehiagotan bidegabeki jaso baldin bada.

#### **29. artikulua. Zehapenak.**

1. Arau-hauste arinei dagokien zehapena ohartarazpena izanen da, edo errenta bermatuaren prestazioa hilabetetik 3 hilabete bitarteko aldian jasotzeko debekua.
2. Arau-hauste larriei dagokien zehapena errenta bermatuaren prestazioa hilabetetik 6 hilabete bitarteko aldian jasotzeko debekua izanen da.
3. Arau-hauste oso larriei dagokien zehapena 1.000 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna izanen da, eta errenta bermatuaren prestazioa 7 hilabetetik 12 hilabetera bitarteko aldian jasotzeko debekua.
4. Artikulu honetan aipatzen diren zehapenez gain, bidegabeki jasotako kopuruak itzuli beharko direla ulertzen da.

#### **30. artikulua. Zehapenen mailaketa.**

Zehapenak honakoa kontuan hartuta mailakatuko dira:

- a) Arau-hauslearen asmoa.
- b) Arau-hauslearen ulertzeko egiazko gaitasuna.
- c) Bidegabeki jasotako diru kopurua.

d) Nafarroako administrazio publikoek alde aurretik egindako errekerimenduak bete ez izana.

e) Familiaren egoera familiarra, bereziki egoera ekonomikoari dagokionez.

f) Urtebeteko epean, kalifikatutako arau-haustea egin zenetik, izaera bereko edo antzeko beste arau-hauste bat edo batzuk egin izana, ebazpen administratibo bidez irmo deklaraturakoak.

g) Zehapen prozedurari hasiera ematea eragin zuten kalteak zuzendu izana, baldin eta prozedura amaitu aurretik egin bada.

### **31. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.**

1.- Foru lege honetan tipifikaturiko arau-hauste oso larriek lau urteren buruan preskribatuko dira, larriek hiru urteren buruan eta arinek urtebeteren buruan, arau-haustea egin zenetik hasita.

2.- Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenek lau urteren buruan preskribatuko dira, larriek hiru urteren buruan eta arinek urtebetera, zehapena ezartzen duen ebazpena irmo egin eta biharamunetik hasita.

### **32. artikulua. Zehapen-prozedura.**

Foru Komunitateko Administrazioak zehapenak ezartzeko foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteengatik, aplikatzekoa izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean aurreikusitako zehapen prozedura.

## **4. sekzioa. Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideez batera baliatzea**

### **33. artikulua. Xehapen orokorrak.**

1. Errenta bermatua aurrenekoz eskatzen duten familia unitateei informazioa eta orientabidea emanen zaizkie, foru lege honetan zehaztutako moduan gizarteratzeko prozesu pertsonalizaturako eskubideaz balia daitezen programan sartzen diren egunean bertan. Nolanahi ere, errenta bermatuaren eskatzaileek hura jasotzeagatik bere gain hartzen dituzten betebeharrekin ados daudela adieraziko dute.

2. Familia unitateak urtebetetik gorako aldian jarraian jaso baldin badu errenta bermatua, eta jasotzen den errentan inolako aldaketarik izan ez bada egoera ekonomikoaren aldaketaren eraginez, gizarteratzeko prozesu pertsonalizatua egin beharko da, gizarteratze aktiborako pizgarriak eman eta sustatzeko xedeaz, eta, beraz, oinarritzko gizarte zerbitzu eskudunak prozedura hasi eta gauzatuko du foru lege honetan ezarritako moduan; prozeduran sartutako pertsonak, berriz, beharturik egonen dira bi aldeen artean libreki hitzartutako programa pertsonalizatua betetzera.

3. Familia unitateak gutxienez hogeita lau hilebete jarraian jaso baldin badu errenta bermatua, kasuan kasuko administrazio publikoak eskaini beharko dio enplegu sozial babestuko programa batean parte hartzeko aukera behinik behin edo enplegu eta/edo

prestakuntzarako beste aukera bat, non ez dagoen horretan sartzeko moduan, erregelamenduz ezartzen diren zerbitzu publikoek hala erabakita. Eskaintza hori programa pertsonalizatuan jaso beharko da, bai eta horrek dakartzan betebeharrak ere.

4. Errenta bermatuaren eskaera tramitatze, gizarteratzeko kodiagnostikoa eta programa pertsonalizatua egin beharra dagoenean, kasu guztietan, programan jaso beharreko jarraipen sisteman aurreikusiko da egoeraren berrikuspenak egin beharko direla sei hilabete behin gutxienez.

#### **34. artikulua. *Gizartean bazterketa larriko egoeran dauden pertsonak.***

1. Errenta bermaturako eskubidea ematen duten baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak ere jasotzen ahalko dute prestazio hori premia egoeran jartzen dituzten inguruabar objektiboak daudenean, espedienteak modu objektiboan justifikatuko diren arrazoiengatik.

Inguruabar horiek daudela ulertuko da foru lege honen 4. artikuluan aipatzen diren kodiagnostikoan bazterketa adierazleak ageri direnean –lan, etxebizitza eta hezkuntza arloetan, osasun fisiko eta/edo mentalaren arloan, eta harreman sozial edo familiarren arloan–, bazterketa sozial larria dagoela erakusten dutenak.

Kasuan kasuko oinarritzko gizarte zerbitzuak egingen du kasurako egokia den akonpainamendu soziala.

2. Instituzionalizazioari aurrea hartzeko eta gizarteratze prozesua sustatzeko, bazterketa egoeran eta gizarteratze eta laneratze zailtasunak dituen pertsona bakarria den, familia unitatean harreraren dagoena eta senideekin eta/edo gurasoekin bizitzera joana deserrotze sozialaren ondorioz, pertsona horrek errenta bermatua jasotzeko eskubidea izanen du, familia unitate independentzat hartuko baita.

3. Gizarteratzeko eskubideaz baliatzearen ondorioz, egoitza-bitartekoek emandako bizileku iraunkorra dutenek ez dute errenta bermatua jasotzeko eskubiderik izanen, haien oinarritzko beharrei zerbitzu horiek erantzuten dietelako.

4. Gizarteratzeko eskubideaz baliatzearen ondorioz, gizarte zerbitzuen edo gizarte eta osasun zerbitzuen aldi baterako harrerako bitartekoek emandako bizilekua dutenek, haien oinarritzko beharrei bitarteko horiek erantzuten badiete ere, errenta bermaturako eskubidea izanen dute foru lege honetan eta erregelamenduzko garapenean aurreikusitako moduan, desinstituzionalizazio eta/edo funtzionamendu autonomoko prozesuari laguntzeko.

#### **Lehen xedapen gehigarria. *Kotizazio gabeko bestelako erretiroko errenta eta pentsioekiko bateragarritasuna.***

1. Foru lege honetan ezarritako prestazioak bateragarriak izanen dira beste edozein prestazio jasotzearekin, kasuko prestazioari buruzko araudiarekin bat.

2. Errenta bermatuaren eskatzaileak erretiroko pentsio kotizaziogabea jasotzen badu eta 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baditu, errenta bermatu hori jaso beharrean, errenta horregatik zegokion diru-sarreraren zenbatekoa adinako kenkari

fiskalerako eskubidea izanen du. Kenkari horren aplikazioa ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 68 artikuluan araututa dago.

#### **Bigarren xedapen gehigarria. Itunak Autonomia Erkidegoekin.**

Gizarteratzea eta laneratzea laguntzeko, eta errenta bermatuaren egiazko edo balizko jasotzaileen bizi proiektuak errazteko, Nafarroako Gobernuak itunak egiten ahalko ditu beste autonomia erkidego batzuekin, elkarrekikotasunaren printzipioari jarraikiz, pertsona horiei erkidego batetik bestera mugitzeko aukera emateko gutxieneko baliabide batzuen eskubideak galdu gabe.

#### **Hirugarren xedapen gehigarria. Konfidentzialtasunaren bermea.**

Foru lege honetan araututako bi eskubideekin loturik dauden prozedura guztietan konfidentzialtasuna bermatuko da, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko erregelamenduan (abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsia) ezarritako printzipio eta betebeharrekin bat.

#### **Lehen xedapen iragankorra. Prestazioak eskatzeko aldi baterako araubidea.**

Foru lege honek indarra hartzen duenean tramitean diren gizarteratze-errentaren eskaerak arau horretan xedatutakoari jarraikiz ebatziko dira, eta, beharrezkoa bada, tramitzeko dokumentazio osagarria eskatuko da.

#### **Bigarren xedapen iragankorra. Enplegurako pizgarriak.**

1. 14. artikulua erregelamenduz garatzen ez den bitartean, errenta bermatuaren jasotzaileek norbere konturako edo besteren konturako enplegua lortzen badute, edo lehendik zuten jarduera ekonomikoa handitzen badute, lortutako diru-sarrera berriak ez zaizkie kontatuko enplegua hogeita hamar egun baino gutxiagotarako baldin bada; bestela, izaera progresiboaz kontatuko da pertsona bakar baten errenta bermatuaren erdia edo gehiago egiten duten diru-sarreraren zatia, eta errenta bermatua honela kalkulatu da:

$$\text{"Errenta Bermatua"} = \left\{ (A \times EB_1) + \left\{ B \times \left[ \left( \frac{\text{"Diru-sarrerak"}}{100} \right) - 2 \right] \right\} \right\} - \text{"Diru-sarrerak"}$$

A: 0,50eko faktore zuzentzailea, 7. artikuluan adierazitako gehikuntzen gainekoa, beraz, A-ren balioak hauek dira:

|                                         |      |
|-----------------------------------------|------|
| Kide bakar batentzat: .....             | 1,50 |
| 2 kiderentzat: .....                    | 1,85 |
| 3 kiderentzat: .....                    | 2,10 |
| 4 kiderentzat: .....                    | 2,25 |
| 5 kiderentzat: .....                    | 2,40 |
| 6 kiderentzat eta gehiagorentzat: ..... | 2,50 |

B: 10eko salbuespenaren progresibitateko parametroa, erregelamenduz garatzen ez den bitartean.

EB<sub>1</sub>: kide bakar baten errenta bermatuaren balioa.

Enplegurako pizgarri horiek gehienez ere urtebeteko jasotze aldian aplikatzen ahalko dira.

2. Foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebete iraganik, behin xedapen honen 1. puntuan ezarritako enplegurako pizgarrien inpaktua eta egokitasuna ebaluatuta, konputuaren kenkari horiek errenta bermatuaren unitate jasotzaileetako kide guztien laneko diru-sarrereri aplikatuko zaizkie, ahalmen ekonomikoak prestaziorako eskubidea ematen duela ezarri ondoren 13. artikuluan aipatutako moduan.

3. Errenta bermatuaren eskatzaile edo jasotzaile den familia unitateko kideren batek enplegu sozial babesturako edo laneratze eta gizarteratze zentro bateko programan parte hartzen badu, aurreko bi puntuetan adierazitako enplegurako pizgarriak aplikatuko dira foru lege honek indarra hartzen duenetik, horrelako kasuetarako erregelamenduz garatzen ez diren bitartean.

#### **Hirugarren xedapen iragankorra. Gizarteratzeko plan estrategikoa**

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean gehienez ere Nafarroako Gobernuak gizarteratzeko plan estrategikoa onetsi beharko du.

#### **Laugarren xedapen iragankorra. Zerbitzu publiko eskudunak**

Foru lege honen 17. artikuluan aipatzen diren zerbitzu publikoak erregelamenduz ezartzen ez diren bitartean, eginkizun horiek oinarritzko gizarte zerbitzuek beteko dituzte.

#### **Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauen indargabetzea.**

Indarrrik gabe gelditu dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak. Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea berariaz indargabetzen da.

#### **Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidez garatzea.**

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez onetsiko du errenta bermatuaren erregelamendua.

#### **Azken xedapenetan bigarrena. Arauak emateko ahalmena.**

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

#### **Azken xedapenetan hirugarrena. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen eta Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko araudiaren aldaketa.**

1. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 20. artikuluko b) letra aldatu eta honela geldituko da:

"b) Errenta bermatuaren prestazioa."

2. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko arauetan oinarritzko errentaren edo gizarteratze-errentaren prestazioari buruz



dauden aipamen guztiak errenta bermatuaren prestazioari buruzkoak direla ulertuko da.

**Azken xedapenetan laugarrena. *Bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezinak deklaratzeko dituen otsailaren 25eko 6/2013 Foru Legearen aldaketa.***

Artikulu bakarraren 1. idatz-zatia aldatzen da.

"1. Errenta bermatua ez da bahituraren xede izanen, salbu eta aplikatzekoa den Estatuko legeria orokorrean ezarritako kasuetan eta aurreikusitako mugekin".

**Azken xedapenetan bosgarrena. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzen da, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.***

Artikulu berri bat, 68. ter, gehitzen da.

"68. ter artikulua. Erretiro pentsio kotizaziogabekoekin bateragarria den errenta bermatuagatiko kenkaria.

1. Dagokion kuota diferentziala finkatu ondoren, kotizazio gabeko erretiro-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen ..... Foru Legearen 5. artikuluan errenta bermatua jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen dituenak, errenta hori jaso beharrean, errentagatik zegokion urteko zenbatekoa adinako kenkari gehigarria egiten ahalko du.

Eskubide Sozialetako Departamentuari kenkari hori denbora baino lehen abona dezan eskatzen ahalko zaio. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk eginen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta denbora baino lehenagoko abonua eskatzeko eta eskuratzeko prozedura ere."

**Azken xedapenetan seigarrena. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzen da, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.***

7. artikulua k) letrako azken lerroaldea aldatzen da.

"Salbuetsiak egonen dira, halaber, gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen ..... Foru Legean ezarritako errenta bermatua ere. Era berean, salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak hartzeagatik, zurtasunagatik edo haur batez baino gehiagorik erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze aldera eta

langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko kasuan kasuko deialdien bidez familiaren arloan emandako laguntzak ere".

***Azken xedapenetan zazpigarrena. Errenta bermaturako eskubidea ematen duten atalase ekonomikoak gainditzen dituzten lan errentak jasotzen dituztenentzako kenkari fiskalei buruzko foru lege proiektua.***

Foru lege honek indarra hartzen duenetik 2 urteko epean gehienez ere, bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako enplegurako pizgarrien inpaktua eta egokitasuna ebaluatu ondoren, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko du Nafarroako Parlamentura, errenta bermaturako eskubidea ematen duten atalase ekonomikoak gainditzen dituztenen lan errentak besteren konturako lanetan jasotzen dituztenei kenkari fiskalak aplikatzeko neurriak ezarriko dituen.

***Azken xedapenetan zortzigarrena. Indar hartzea.***

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.